



KILT WP3

PRODUCTION  
DES OUTILS OPÉRATIONNELS ET TESTS



Programme d'éducation  
et de formation  
tout au long de la vie

## Egiten ari diren KILT probak *\_Euskal Herria*



**Euskal Kultur Erakundeak** 1.1 moduluko (antropologia eta soziologia ulermenerako giltzak) hiru tresna aztertu ditu: "Lurralde batean bizi: begirada kontua"; "Lurralde batean bizi: bizi-hautu bat"; "Lurralde batean bizi: istorio baten fruitua".

Proba horiek bi asteazken arratsaldez iragan dira, 14:00etatik 17:00etara, apirilaren 1 eta 15ean, kolegioko bost irakasleren presentzian (11 eta 15 urte arteko ikasleentzako irakasleak), baita Terexa Lekumberri Euskal Kultur Erakundeako animatzaile-pedagogoaren eta SEASKA ko formakuntza arduradunaren presentzian ere.

Helburua medikuntza eta gizarte esparrutik ateratzea zen, tresnaren aplikagarritasuna aztertzeko hezkuntza eta irakaskuntza esparruan. Birmoldaketa zenbait egin beharko dira baina bi probak positiboak gertatu dira oro har, eta irakasle/ikasle harremanaren galdekatze nahiari erantzuten zioten.





KILT WP3

PRODUCTION  
DES OUTILS OPÉRATIONNELS ET TESTS



Programme d'éducation  
et de formation  
tout au long de la vie

## Egiten ari diren KILT probak *\_Euskal Herria*



Haren aldetik, **Etxarriko Formakuntza Garapenak** probak abian ezarri ditu bere egitura formakuntza segitzen duten Gizarte-Bizi Laguntzaileentzat.

Gizarte-Bizi Laguntzaileek parte hartzen duten testuinguru pertsona hauskorren etxea da, bereziki besteen meneko diren adineko jendeak. Laguntzen hasten ahalko dira pertsonak profesionala haren etxeko ingurumen pribatu eta intimoan sartzen utziko duelarik. Haien irudikapenak galdekatzea baitzepadakoa da harrera erraztuko duen eta profesionala onartua izanen den konfiantzazko harremana sortzeko.

Taldeak "Antropologia eta soziologia ulermenerako gakoak" moduluko "Lurralde batean bizi: bizi hautu bat" sekuentzia aztertu du bereziki. Horren bidez, bakoitza ohartu ahal izan da nola lurralde bat bizitzen eta inbertitzen duen, eta norekin. Irakurketa partekatu horren bidez, bakoitzaren bizimodu buruz trukatu ahal izan da. Haien "bizitzeko moduaren" eta haien lan testuinguruaren arteko lotura finkatu ahal izan da, zeinak eztabaida mamitsua eman baitu alor desberdinen inguruan: kulturak, eskukoitasuna, hautuaren nozioa, denboraren nozioa, egokigarritasuna, lanaren balorea, zerbaiten parte direlako sentimendua... Hainbat galdekatze, harremanak arrastak zituela agerian ezarri duena, edo kuriositatea piztu duena edo irekidurara bultzatu.

2

Probak egin dira Etxarrin, formakuntzako lehen urtean diren hezitzaile berezituekin, "Behatuz ulertzea" tresnarekin. Berrogeita hamar pertsonaz osatu taldeak bete behar zen "armarri" bati buruz lan egin du, erakunde profesionaletan egin "deskubritze ikastaroaren" bigarren egunean (8 asteko ikastaroa). Horri esker denek behatzeko gakoak ukan izan dituzte eta hobeki ulertu erakundearen funtzionamendua, hau trabatu ditzaketen faktoreez ohartu.

Proba itzuli da 10 pertsonako taldeka –saio aberatsa eta kandidatuek ongi inbestitua–. Itzultzearen ondotik, kandidatuak ohartu dira bakoitzak ikastaro denboran deskubritu duen erakundeaz zituen irudikapenez, zeina zinezko arrasta izan baitzitekeen erakundearen errealitatearen ulermenarentzat.





KILT WP3

PRODUCTION  
DES OUTILS OPÉRATIONNELS ET TESTS



Programme d'éducation  
et de formation  
tout au long de la vie

## Egiten ari diren KILT probak *\_Italia*



Italian, Emilia-Romagnako Eskualdeko Osasun eta Gizarte Agentziak "Fluxograma" tresna probatu du Forli, Cesena, Piacenza eta Parmako osasun zerbitzuetan: aukera ezin hobea erakunde horientzat, haien antolaketari eta erabiltzaileen beren gain hartzeari buruz gogoetatzako.



Martxoaren 31n Euskal Kultur Erakundeak ekoiztu tresna bat ere probatua izan da: "Lurralde batean bizi: begirada kontua". Tresna hori egokitua izan da topatu diren solaskideei, hau da, etnografia antolatzaileari buruz formatzen ari diren osasun eta gizarte esparruko profesionalei. Haien parte hartze espazioari buruz gogoetatu ahal izan dute eta parte hartze horiek iragaten diren testuinguruak behatu, beren jarrera profesionala kontuan hartuz...







KILT WP3

PRODUCTION  
DES OUTILS OPÉRATIONNELS ET TESTS



Programme d'éducation  
et de formation  
tout au long de la vie

## Egiten ari diren KILT probak Eslovakia



ECKVRNM eta SPARK partaide eslovakiarrek beren gain hartu dituzte "Nagusitasun irudikapen" tresnari buruzko probak –"Besteari komunikazioa eta harreman-psikologia" modulutik atera elementua–.

ECKVRNMak tresna hori probatu du Bratislavako Santa Elisabet Osasun eta Lan Sozial Unibertsitatearekin elkarlanean, urtarrilaren eta martxoaren artean, eta 200 bat ikaslerekin, gizarte-laneko unibertsitate ikasketa hein desberdinekoak.

Aldi berean, SPARKak, gizarte-lanean ari den Bigarren Mailako Eskolak, proba bera egin du bere ikasleekin. Azkenik, martxoaren eta apirilaren artean, SPARKak bi proba ere egin ditu "Bizi naizen lekua, dudan ametsa" tresnarentzat, "Antropologia eta soziologia ulermenerako gakoak" moduluko zatia.





KILT WP3

PRODUCTION  
DES OUTILS OPÉRATIONNELS ET TESTS



Programme d'éducation  
et de formation  
tout au long de la vie

## Egiten ari diren KILT probak *Katalunia*



Vall d'Hebron  
Institut de Recerca

VHIR



Prosics

Institut Català de la Salut  
Programa de salut internacional  
Barcelona

Katalunian, "Unitat de Salut Internacional Drassanes - VHIR- PROSICS Barcelona"-ko Komunitate-Osasun lantaldeak bi tresna probatu ditu: "Ibilbide indibidualen kontuan hartzea" modulutik "Bizi ibilbideen kartografia" tresna, eta "Around me" tresna. "Around me" tresna hori probatua izan da urtarrilean ondoko hauen laguntzarekin: komunitate-osasuneko 8 langile, 2 erizain eta 1 mediku, denak Kataluniako Osasun-Erakundeko osasun-etxe desberdinetan enplegatuak. Proba horri esker elementu zenbait hobetu eta heineratu ahal izan ditugu eta tresnaren egokitzapen posibleak kontuan hartu. Martxoan, tresna Kataluniako Osasun Departamenduko ordezkari politiko zenbaiti aurkeztu diegu, eta haiek ere egokitzapenak iradoki dituzte. Bi taldeek baikorki ebaluatu dute tresna, zeina bukatze fasean baita. "Bizi ibilbideen kartografia" tresnari dagokionez, apirilean probatu dute osasun esparruko 9 profesionalek (3 mediku, osasun esparruko 3 komunitate-langile, 2 erizain, 1 administrazio-arduradun). Bilkura biziki aberasgarria izan da, parte hartzaileek iruzkin franko egin baitute, ebaluazio dokumentu desberdinetan erregistratuak izanen direnak.





KILT WP3

PRODUCTION  
DES OUTILS OPÉRATIONNELS ET TESTS



Programme d'éducation  
et de formation  
tout au long de la vie

## Egiten ari diren KILT probak *\_Eskozia*



Haien aldetik, **NHS Lothian** taldeko eskoziarrek proba zenbait eginak dituzte.

Lehenik, 2014ko urrian, "Besteari komunikazioa eta harreman-psikologia" moduluko "Egoiliar, erabiltzaile, paziente baten harrera, ezagutzea"-ri buruzko tresna, probatu dute diabetesaren tratamenduan lan egiten duten osasunaren profesionalek eta baskular-medikuntzako aholkulariek. Tresna hori berriz aurkeztu da joan den martxoan Edinburgheko langile-  
auzo bateko orotako medikuntza zentroko lantalde osoari (harrera eta mediku langileak).

Bestalde, 2014ko urrian, medikuntza unibertsitateko ikasle batzuek probatu dute "Osasun eta gizarte parte hartzeen xede diren populazioak" tresna, "Herriko eta komunitateetako politika eta gizarte errealitateak" modulutik.

Azkenik, 2015eko maiatzean, tresna hau probatuko du artak etxean egitea koordinatzen duten talde batek: "Leku batean bizi: nola, norekin, zergatik?", "antropologia eta soziologia ulermenerako giltzak" modulutik.